

Arratsalde on eta ongietorri Aramaiora, Euskaltzain guztiok eta herritar nahiz kanpotik etorri zaretenok.

Baina gaurko egun honetan ongietorri berezia luzatu nahi diot herri osoaren izenean, Patxiri, Esteban eta Karmenen semeari, Aramaioko seme kuttunari: Ongietorri ba, eta guztion partez zorionak!

Etxanen gau eskolekin hasi zinenetik urte batzuk igaro dira, ezta? Ba begira, harri bitxi bezala gordetzen dugu Udaletxean 1973an eginiko lan bat, argitaratu gabea, seguruenik oso gutxi ezagutzen dutena, eta bertan jartzen duen bezala “gure euskara eta kultura aberasteko asmotan eginikoa”... Bai, batzuk igarriko zenuten Aramaioko lehendabiziko toponimia bilketaz ari naizela, Patxi Uribarrenek eginikoa, lizentziaturarako azterketa lan bezala.

Urteekin, jakinduriaz, espezializatzen joan zara eta goimailako emaitzak eskaini dizkiguzu; horra hor *Gogoz* eta *Karmel* aldizkarietan egin dituzun kolaborazioak edota *Bostak bat* taldearekin argitaratutako hiztegiak, adibidez. Badakigu gainera Aramaioko herriak behin baino gehiagotan primizian jaso dituela lan horiek, zuri esker!

Aramaiotik kanpo, Etxan zure auzotik kanpo, asko ibilia zara, baina beti izan duzu Aramaio herriarekin lotura estua. Sarritan ikusten zaitugu hemen, familia bisitatzeraz etorria, ospakizunetan, eta abar. Zure sarrera-hitzaldia hemen, Aramaion egiteak ere badu esanahai berezia zuretzat, badakigu, baina baita guretzat ere, herri osoarentzat.

Euskararen alde egin duzun lanak aditu bihurtu zaitu, eta merezi duzun tokia egin dizute Euskaltzaindia bezalako erakundean, miresgarria da benetan! Zorionak, horregatik!

Eskerrik asko, gainera, zure izenarekin batera Aramaio izena ere zabaldu duzulako, herri euskaldun bezala, Euskal Herrian eta hemendik kanpo. Harro gaude lortu duzunarekin eta harro gaude gaur hemen gu guztiok bildu gaituzulako: zure lankideak, familiartekoak, lagunak, eta zenbait herritar. Mila esker denoi eta gehiago luzatu gabe, nire ondotik datozei hitza ematea baino hoberik ez.

Egun emankorra izan dezagula,

Asier Agirre, alkatea
Aramaion, 2010eko maiatzaren 28an